



“NO ENTRES SOLA”

KANPAINAREN ERREKLAMAZIO-EREDUA

Erreklamazio eredu hau, mediku-bisitetan, proba diagnostikoetan, ebakuntza edo bestelako osasun jarduketatan, eurak aukeraturiko pertsonagatik lagundurik egon ezin izan duten emakumeen eskura jartzen dugu, bertan datorren testua oinarri gisa erabil dezaten, Ospitaleari edo Osasun-Zentroari erreklamazio bat aurkeztu ahal izateko. Erreklamazioa oinarritzeko, Autonomia Erkidego bakoitzean aplikatu beharreko legeria aukeratzea gomendatzen dugu, testua moldatuz (“Hirugarren” oinarri juridikoan).



OSASUN ZENTRUAREN IZENA

ZUZENDARITZARI

Nik, **izen-abizenak**, adinez nagusia naizenak, XXXXXXXX, NAN zenbakidunak, eta jakinarazpenetarako honako helbidea duenak: XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX eta helbide elektronikoa: xxxxxxxx, ERREKLAMAZIO idatzi hau aurkezten dut, **osasun-zentroaren izena**-ren aurka, ondorengo aurrekari hauetan oinarrituta:

EGITATEAK

LEHENENGOA.- Honako frogetan:

- Ekografia diagnostikoa
- Ginekologoarekin bisita
- Emaginarekin bisita
- Beste froga bat.....

Ez zaidala utzi, nik hautaturiko persona batez lagundurik sartzen

Data: _____

Zentroa/Ospitalea _____

Egitate hauei, aplikagarri zaizkio honako



OINARRI JURIDIKOAK

LEHENA.- Sinatzen duenari, haurdunaldian zehar, osasun-zerbitzuetako edozein proba, bisita edo artapen mediku orotan, bere hautazko persona batez lagunduta egoteko eskubidea dagokio, osasun-zerbitzuetako paziente eta erabiltzaile den heinean. Eskubide hau, besteak beste, Osasunaren Mundu Erakundearen (OME, erdarazko OMS), Europarako Eskualde Bulegoaren EUROPAKO PAZIENTEEN ESKUBIDEAK SUSTATZEKO ADIERAZPENEAN ("DECLARACIÓN PARA LA PROMOCIÓN DE LOS DERECHOS DE LOS PACIENTES EN EUROPA") aitortzen zaio (Pazienteen Eskubideei buruzko Europako Kontsulta, Amsterdam, 1994ko martxoaren 28a).

Adierazpen horren arabera, pazienteen eskubideetako bat litzateke, 5. atalean jasotzen dena, hots: "**osasun-arreta eta tratamendua**", eta eskubide honi dagokionez, eta salatzen dugunarekin loturik, 9. puntuan honako hau adierazten da:

"Pazienteek zaintza eta tratamendu guztian zehar beren familien, ahaideen eta lagunen laguntzaz gozatzeko eskubidea dute, baita une oro, laguntza espirituala eta orientazioa jasotzekoa".

EUROPAKO PAZIENTEEN ESKUBIDEAK SUSTATZEKO ADIERAZPEN honek (aurrerantzean, "Adierazpena") pazienteen eskubideen oinarriak finkatzen ditu, eta honako helburu hauek ditu, besteak beste: "Oinarrizko giza eskubideak berrestea osasun-arretaren atalean, eta, bereziki, pertsonaren duintasuna eta osotasun edo integritatea babestea, hala nola pazientea pertsona gisa errespetat dadin sustatzea ere"; (...) "Pazienteek, osasun publikotik eratorritako edozein onura lortzen laguntzea, eta sistema hortatik ondoriozta daitekeen edozein arazo arintzea" (...) "Oinarrizko giza eskubideen babesa ziurtatzea eta paziente guztiei ematen zaien laguntza edo artapena gizatiarragoa egitea"

Printzipio edo oinarri horiek finkatzerako garaian, aipatu Adierazpenak, gobernuarteko tresna ezberdinak kontutan hartu ditu eta beraietaz hornitu da. Tresna horiek honakoak dira (3. atalean espreski adierazten dituen moduan):

- Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala (1948).



- Eskubide Zibil eta Politikoei buruzko Nazioarteko Ituna (1966).
- Ekonomia, Gizarte eta Kultura Eskubideen Nazioarteko Ituna (1966).
- Giza Eskubideei eta Oinarrizko Askatasunei buruzko Europako Hitzarmena (1950).
- Europako Gutun Soziala (1961).

Honela, Adierazpen hau aplikatzearekin bat, nazioarteko arau oinarrizkoenak eta garrantzitsuenak aplikatzen ari garela baieztatu genezake.

Hori dela eta, Adierazpenaren 6. Atalak, **eskubide horiek bereizkeriarik gabe bermatu behar direla ezartzen du**. Bereizkeria bezala ulerturik: "Antzeko kasuetan pertsonen artean egiten den bereizketa, arraza, sexua, erlijioa, iritzi politikoak, jatorri nazionala edo soziala, gutxiengo nazionalako elkarteak edo antipatia pertsonalean oinarri hartuta" (7. atala).

Adierazpen horrek halaber aipatzen du, bertan aldarrikaturiko eskubideek, eurekin dakartela, bitarteko egokiak ezarri behar izatea hauek egikaritu ahal izateko. Hau da, badirudi Europar Batasuneko estatu kideak behartzen dituela, haien osasun-zerbitzuek eskubide horiek gauzatzeko tresnak egokitzera eta ez, eskubide horiek mugatzera, idatzi honen bidez salatzen dugun bezala.

Ondorioz, eskubide horiek baliatzean, pazienteek dituzten muga bakarrak, giza eskubideen tresnekin bateragarriak direnak izango dira, eta muga horiek, Adierazpenak argi dioen bezala, **legez agindutako prozedura baten arabera, soilik, ezarri ahalko dira. Hau da, inongo ospitaletako erabakiek, ezein protokoloek, barne-funtzionamenduko edozein arauk, etab.-ek, ez dutenez lege-mailarik, ezingo dituzte Adierazpen horretan aitortutako eskubideak inolaz mugatu.**

Ondorioz, **haurdun dagoen emakumeak, paziente eta osasun-zerbitzuen erabiltzaile den unetik, inolako bereizkeriarik gabe bere familiaren, ahaideen eta lagunen (azken batean, berak aukeratzen duenaren) laguntzaz gozatzeko eskubidea du, ematen zaizkion edo jasoko duen edozein asistentzia edo artapen, zaintza eta tratamenduetan zehar.**

BIGARRENA.- Aipatutako eskubideak haurdunarenak dira osasun-zerbitzuen paziente edo erabiltzaile den une beretik, bai osasun publikoan, nahiz pribatuan. Hau da, osasun-laguntza edo asistentzia jasotzen duen edonori dagozkio eskubide horiek. Baina ez da ahaztu behar



aipatutako Pazienteen Eskubideen Adierazpenak berebat dakarrela edo inspirazioa jasotzen duela, besteak beste, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsaletik eta honek, **amatasuna babesteari garrantzi berezia** ematen dio. Hala, 25. artikulua honako hau dio:

"1. Pertsona orok, hala nola, bere familiak osasuna eta ongizatea ziurtatuko dizkion bizi-maila egokia izateko eskubidea du, eta bereziki, elikadura, jantziak, etxebizitza, **mediku-laguntza** eta beharrezko gizarte-zerbitzuak bermatuko dizkiona; halaber, aseguruak jasotzeko eskubidea du langabezia, gaixotasuna, baliaezintasuna, alarguntasuna, zahartzaroa edo bere borondatek kanpoko inguruabarren ondorioz bizirauteko baliabideak galtzen dituen kasuan.

2. Amatasunak eta haurrek zaintza eta asistentzia bereziak izateko eskubidea dute. Ezkontza edo ezkontzatik kanpo jaiotako haur guztiek babes sozial bera izateko eskubidea dute".

Beraz, edozein gaixori bere aukerako pertsona batek lagunduta egoteko eskubidea badagokio, **are gehiago babestu eta bermatu behar zaio haurdun dagoen emakumeari bakarrik ez egoteko duen eskubidea**; edo, beste era batetara adierazita, laguntza berezia dagokion emakume haurdun baten eskubidea mugatzeko, ospitale bakoitzean hartutako erabaki soilak baino zerbait gehiago beharko da. Lehen oinarri juridikoan adierazi bezala, pazienteen eskubideak mugatzeko legez agindutako prozedura bat errespetatzea beharrezkoa da, eta beraz, emakume haurdunaren eskubideei dagokienez, **edozein pazienteren eskubideak mugatzeko eska daitezkeen berme edo tresna adina edo gehiago eskatu ahal izango dira.**

HIRUGARRENA.- Hainbestetan aipaturiko Europako Adierazpen hori ez da hutsala, eta, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalarekin batera, Osasun Zuzenbidearen arloan dugun Estatuko araudi garrantzitsuenen oinarrian dago, eta, beraz, erabat aplikagarria bilakatzen da. Horrela, eta, besteak beste, Pazientearen Autonomia eta Informazio eta Dokumentazio Klinikoaren arloko eskubide eta betebeharrak arautzen dituen 41/2012 Oinarrizko Legearen Zioen Azalpenera jotzen badugu ("Ley 41/2012 Ley básica reguladora de la autonomía del paciente y de derechos y obligaciones en materia de información y documentación clínica"), honako hau aurkituko dugu: *"Giza eskubideen Adierazpen Unibertsalaren garrantzia aipatu behar da, 1948. urtekoa, nahitaezko erreferentzia-puntua izan delarik, gerora aldarrikatu*



diren konstituzio-testu guztietarako, edo osasunaren esparru hertsian, Europako Pazienteen Eskubideak Sustatzeako Adierazpena, 1994an Osasunaren Mundu Erakundearen Europarako Eskualde Bulegoak sustatua, gai horiei buruzko irismen eta eragin handiagoko edo txikiagoko nazioarteko hainbat adierazpenez gain .

Ondorioz, Estatuak Adierazpen hori aplikatu eta bere araudian txertatu nahi izan du; beraz, Adierazpenak aitortzen dituen eskubideak baliatzeko bitartekoak ezarri beharko ditu, eta horiek mugatzeko, lege bidezko prozesuak arautu. Era berean, adierazpen hori hainbat lege autonomikoren oinarrian dago (*Ley de Ordenación Sanitaria de Madrid 12/2001 de 21 de diciembre; Ley de Autonomía del Paciente y Derechos de Información y Documentación Clínica de Cataluña 21/2000 de 29 de diciembre; Derechos y garantías de la dignidad de las personas enfermas terminales 5/2015 de 26 de junio; Ley sobre derechos y deberes de las personas en relación con la salud de Castilla y León, 8/2003 de 8 de abril; Ley de Información Sanitaria y Autonomía del Paciente de Extremadura 3/2005 de 8 de julio; Ley Foral de Derechos y deberes de las personas en materia de salud en Navarra 17/2010 de 8 de noviembre; Comités de Ética Asistencial en el ámbito del Servicio de Salud de Castilla-La Mancha, Decreto núm. 95/2006 de 17 de julio*).

Azken honen harira, hau da, Autonomia Erkidegoetako araudiari dagokionez, Erkidego batzuetan indarrean dauden lege eta arauak lagunduta egon ahal izateko pazienteari dagokion eskubidea (“derecho de acompañamiento” deritzona gaztelaniaz) aintzatesten dute; eta ondorioz, osasun-zerbitzuetara jotzen duen emakume haurdun orori eskubide hau aitortzen zaio. Arau horietako batzuek, gainera, zehaztasunak aurreikusten dituzte emakumeei dagokienean. Horrenbestez, **AUTONOMIA ERKIDEGOAREN IZENA**-ko autonomia erkidegoari dagokionean:

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGO (EUSKADI)

147/2015 DEKRETUA, uztailaren 21ekoa, Euskadiko osasun-sisteman pertsonen Eskubideei eta Betebeharrei buruzko Adierazpena onartzen duena

“9. artikulua. Sexu- eta ugalketa-osasunari lotutako osasun-laguntza espezifikoa



Euskadiko osasun-sistemako gaixoeak eta erabiltzaileak, sexu- eta ugalketa-osasunari buruzko osasun-laguntza espezifikolari lotuta, honako eskubide hauek dituzte:

(...) c) **Ospitaleko egonaldian erditzearen aurretik eta erditzean, eta erditzearen ondorengo aldian bere bikoteak edo bere konfiantzako pertsonak lagunduta egoteko eskubidea. Eta erditu eta gero, bai eta geroago edozein osasun-zentro edo -zerbitzutara doanean, haurra eta bikotekidea edo bere konfiantzako pertsona ondoan izateko eskubidea”.**

NAFARROA

17/2010 Foru Legea, azaroaren 8koa, Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren alorrean pertsonak dituzten eskubideei eta betebeharrei buruzkoa

“16. artikulua. Lagundua izateko eskubidea.

1.- Osasun-zentro, zerbitzu eta establezimenduek erraztasunak emanen dituzte **senide batek edo konfiantzako pertsona batek gaixoak laguntzeko**, salbu eta presentzia hori gomendagarria ez den edo osasun prestazioarekin bateraezina den kasu eta egoeretan.

(...)

3.- **Emakume orok eskubidea du erditzean bere bikotea edo hark izendatutako beste pertsona bat bertan egon dadin**, salbu eta inguruabar klinikoak direla medio hori gomendagarria ez denean; inguruabar kliniko horiek, betiere, azaldu egin beharko zaizkie, modu ulergarrian, erabakiak ukitutakoei”.

Beraz, izenpetzen duenari, lagunduta egoteko eskubidea dagokio.

LAUGARRENA.- Aipatutako arau autonomikoek, pazienteak, berak hautaturiko pertsonagatik lagunduta egotearen eskubideari salbuespenak jartzen dizkiete, gehienetan aipatzen da: inguruabar klinikoek gomendagarria ez egitea, edo presentzia hori, irizpide klinikoen arabera, osasun-prestazioarekin bateraezina izatea. Honek, pandemia egoeran gaudela gogoraraz diezaguke, baina arau horiek, 2020an COVID-19 agertu aurrekoak dira eta ondorioz, irizpide horiek pazienteak une horretan duen egoera klinikoari edo bestelako inguruabar zehatzei loturikoak direla baieztatu dezakegu, hau da, pandemiarekin zerikusirik ez dutenak.



Horretaz gain, ez dago Europako Pazienteen Eskubideak Sustatzeko Adierazpenak eskatzen duen legez onartutako prozedurarik pazienteen eskubideak mugatzen dituenik, eta are gutxiago, eta bereziki, haurdun daudenen eskubideak mugatzen dituenik.

2020ko martxoaren 14an, 463/2020 Errege Dekretuaren eta ondorengo luzapen-dekretuen bidez, larrialdi edo osasun krisia dela eta, alarma-egoera ezarri zen. Errege Dekretu bat ez da lege bat, baina Konstituzio Auzitegiaren 2016ko apirilaren 28ko 83/2016 epaiak argitu zuen bezala, alarma-egoera agintzen duen araua (edo bere luzapena erabakitzen dituztenak) *"gure ordenamenduan lege-maila edo baliokidea duen erabaki edo xedapen gisa konfiguratuta geratzen da. Eta, ondorioz, parekagarriak diren lege eta arauen indarra du edo baliokidea, bere eduki eta efektuei dagokionean, ondorioz, arau horiek berak salbuetsi, eten edo aldatu ditzake"*.

Baina alarma egoera ezarri zuen arauak ez du onartzen pazienteen eskubideak mugatzen dituen prozedurarik. Are gehiago, mugatzen dituen eskubideen artean daude: zirkulazio edo mugikortasun eskubidea, salbuespen batzuekin, horietako bat, osasun zentru, zerbitzu eta establezimenduetara joatea, hori beti baimenduta egon delarik; edo persona taldeak espazio publiko eta pribatuetan egotea mugatzea, euren kopuruari dagokionean. Azken eskubide edo askatasun hau, inoiz ez da pertsona bakar batera edo bira murriztu (profesional medikoarekin), haurdun dagoen emakume bati proba edo bisita mediko batetara, nahi duen pertsonaz lagunduta joatea debekatzea ahalbideratzeko edo justifikatu ahal izateko.

Gaur egun, dakigun bezala, Autonomia Erkidegoetako Lehendakariizei dagozkien neurriak hartzea: maskarak erabiltzea derrigorrezkoa izatea, segurtasun-distantziari eustea, establezimenduen edukiera, garraio kolektiboen arloko kontrolak, mugikortasuna mugatzea, pertsonak taldeka egotea, etab. Neurri horiek ez dituzte 463/2020 Errege Dekretuak mugatzen zituen eskubide eta askatasunen gainean ezarritako mugaz haratago, bestelako mugarik jartzen eta ondorioz, haurdunaldi, erditze eta erditzearen ondorengo eskubideen gain ez dute inolako eraginik.

Beraz, haurdun dauden emakumeek beren eskubide guztiak bere horretan mantendu behar dituzte, gaur egun indarrean dagoen eta loteslea den araudia errespetatuz, besteak beste, aipatutako Europako Pazienteen Eskubideak Sustatzeko Adierazpena eta gainerako osasun-araudia (Pazientearen Eskubideen Europako Gutuna; 1979ko Emakumeen aurkako



Diskriminazio mota oro Ezabatzeko Konbentzioaren 24. gomendio orokorra (CEDAW), 2019ko uztailleko, ugalketa-osasunaren zerbitzuetan ematen den Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko Errelatore Bereziaren txostena, bereziki erditzearen arreta eta indarkeria obstetrikoiari buruzkoa eta honen gomendioak; Espainiar Konstituzioa; azaroaren 21eko 44/2003 Legea, osasun-arloko lanbideak antolatzekoa, etab.).

Era berean, garrantzitsuak dira OMEren gomendioak (OMS, gaztelaniaz), ebidentzia zientifikoa oinarritutakoak. Hauen arabera, haurdun dauden emakume guztiek, baita COVID-19 dutela susmatzen denean edota baieztatzen denean ere, kalitatezko arreta jasotzeko, eskubidea dute, bai erditzearen aurretik, bitartean eta ondoren. Arreta horren baitan sartzen delarik jaio aurreko, jaiotze uneko, jaio ondorengo eta erditze baitango arreta; hala nola, osasun mentalarena.

Izan ere, Osasun Ministerioak ateratzen dituen dokumentuak, jarraibide edo argibideekin, OMEren gomendio horien arabera burutzen dira. Hala, konfinamenduan zehar, Osasun Ministerioak "konfinamendu-egoeran dauden emakume haurdunentzako informazioa eta jarraibide orokorrak" izeneko dokumentu bat atera zuen ("Información y pautas generales para mujeres embarazadas en situación de confinamiento"). Dokumentu horren 6. atalean, osasun-arretari buruzkoan, haurdunaldiaren jarraipen edo kontrolean, errespetatu beharreko jarraibideak jasotzen dira, zehazki honako hauek aurki ditzazkegularik:

"Bertaratzea beharrezkoa bada, ospitalera bakarrik joatea gomendatzen da, kutsatzeko arriskuak gutxitzeko, beti ere, egoera emozional eta fisikoak ahalbideratzen badu. Norbaitekin, lagundurik joan behar izanez gero, beti pertsona bera izatea gomendatzen da (COVID-19 infekzioaren susmorik/baieztapenik ez duena), eskuetako higiene-neurriak zorrotz jarraituz. Ezinbestekoa da osasun-langileen esposizioa ahalik eta gehien mugatzea, guztiok haien laguntza izaten jarrai dezagun".

Ondorioz, bakarrik joatea gomendatzen den arren, lagunduta egoteko aukera aurreikusten zen baita konfinamenduan ere (orain informazio gehiago dago eta neurriak arinagoak dira edo izan behar lukete).



Bestalde, Osasun Ministerioaren 2020ko martxoaren 17ko dokumentu teknikoak, "Covid-19 duen Haurdunaren eta jaioberriaren trataera" ("Manejo de la mujer embarazada y el recién nacido con Covid-19"), covid-19 kasuetan jarraitu beharreko jardunbideak adierazten ditu, zehazki, bere 6.5 puntu honako hau jasotzen du: "Ez da zertan mugatu behar, emakumeari lagunduko dion persona erditzearen unean sartzea, beti ere, beharrezko babes-neurriak hartzen badira".

Hori horrela izanik, geure buruari egin beharreko galdera argia da: erditzean laguntzailea sartu ahal izatea mugatu behar ez bada, zergatik mugatu behar da haurdunaldian zehar?

Edozein bisitarako, bai medikuarekin edo emaginarekin, edota proba, ekografia, etab. egiteko ez da erditze bat bezainbeste denbora behar, toki berean ez da jende gehiago pilatzen, eta ez dago inongo arazo edo eragozpenik, beharrezko distantzia eta segurtasun eta higiene-arauak betetzeko; beraz, **ez da inondik inora justifikatzen erditzetik kanpoko beste edozein asistentzia edo proba medikotan, emakumea beste persona batez lagunduta egotea debekatzea.**

BOSGARRENA.- Estatuko arau-esparrura itzulita, lege organiko bat aipatu beharra dago: Sexu eta ugalketa osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko eteteari buruzko martxoaren 3ko 2/2010 Lege Organikoaz ari gara. Lege Organiko honek konfidantzazko persona batez lagunduta egoteko eskubidea espreski aitortzen ez badu ere, bere edukitik ondoriozta daiteke, emakumearen bikotekidea eta familia, bere sexu eta ugalketa osasunaren arretan present egotea ahalbidetu nahi duela, Lege Organiko honen 7. Artikuluari erreparatzen badiogu:

"Osasun-zerbitzu publikoek bermatuko dute:

C) Haurdunaldian, erditzean eta erdiberriaroen (puerperioan) emakumeak eta bikoteak kalitatezko zerbitzuez hornitzea. Zerbitzu horiek ematean, desgaitasuna duten pertsonen irisgarritasun baldintzak kontutan hartuko dira.

D) Jaiotza inguruko arreta, familian eta garapen osasungarrian oinarrituko da".

Beraz, haurdunari dagokion aipaturiko eskubideak, hau da, berak hautaturiko pertsonaz lagunduta egoteko eskubide horrek, lege organiko honetan ere babesa aurkitzen duela



baiezta dezakegu, kontutan izanik gainera, Lege Organiko orok, Konstituzioak aitortutako oinarritzko eskubideak eta askatasun publikoak garatzen dituela. Horrela, Lege Organiko horren 1. artikulua ezartzen duen bezala, lege horren xedea: **sexu eta ugalketa osasunaren esparruan oinarritzko eskubideak bermatzea**, haurdunaldia borondatez eteteko baldintzak arautzea eta botere publikoei dagozkien betebeharrak ezartzea da.

Lege Organiko honek, funtsean, emakumeak ditu ardatz, baina ez ditu ahazten bikoteak eta familia; azken hau, era zabalenean interpretatuta, gure gizartean dugun familia aniztasun errealitatea errespetatuz. Hori dela eta, ez dugu alde batera utzi behar emakumearen eta bere haurraren familia osatzen dutenen eskubidea, haiek ere haurdunaldiaren parte izan nahi baitute, emakume horri eta bere haurrari lagunduz, bere ondoan egoten, eskutik helduz, dena ondo doala ospatzeko edo gaizki doanean elkarrekin kezka partekatzeko, profesionalen informazioa behar bezala jaso ahal izateko, galderak eginez bai emakumeak edota familiako kide horrek, izan ditzaken zalantza propioak argituz. Berea ere baden haurtxo horren taupadak entzun, haurrarekiko lotura hori ahalbidetzea, etab.

Emakumeari, lagunduta egotea ukatzen zaionean, emakumearen eskubideak ez ezik, haur horren, haurdunaren bikotekidearen eta familien eskubideak ere urratzen ari dira.

SEIGARRENA.- Haurdunaldiaren jarraipenean egin ohi diren froga medikoetan emakume bati lagun egiten ez uzteak, hainbat arauditan aitortu eta oinarritzko eskubideetan oinarritzen den eskubide ukazina izanik, **"Lex artis"-a urratzen dela** baieztatu dezakegu. Alde batetik, beharrezkoa den prozeduraren bidez (legez) mugatu ez den eskubide bat urratzen duelako, eta, bestetik, "Lex artis" delakoa zientzia medikoaren unean uneko egoerak egituratzen duelako, hau da, argitalpen zientifikoetan, protokoloetan, hitzaldietan eta abarretan islatzen den hori delako. Eta kasu honetan, egungo ebidentzia zientifikotik ez da ondorioztatzen, haurdunak lagunduta egoteko duen eskubidea egikaritzea debekatuko lukeen inongo arrazoi edo justifikaziorik, beti ere, babes-neurriak errespetatzen badira, beraz, arrazoi honegatik ere, "lex artis" delakoa hausten da.

Horretaz gain, aurrekoak, hau da, emakumea lagunduta ez egoteak, **BAKARRIK** uztea dakar, bere bizitzako une garrantzitsuetako batean, babesik gabe eta zaugarri (albiste oso gogorak jaso behar baditu ere, erabat bakarrik), eskubide bat egikaritzea eragotziz, inolako ebidentzia zientifikoan oinarritu gabe. Guzti honek, osasun-sistemaren aldetik, inongo



beharrrik gabe, praktika larri eta krudela burutzea suposatzen du emakumearengan, eta beraz, **indarkeria Obstetrikorearen kontzeptuaren barruan sar daitekeena.**

Hori guztia oinarri hartuta, idatzi honek, eskubideak urratzen dituzten jokabide horiek guztiak salatzea eta geldiaraztea du helburu eta haurdun dauden emakumeei, une oro, eurek aukeratutako pertsona batez (gutxienez), lagundurik egotea ahalbidetzea.

Ondorioz,

Alderdi honek **ESKATZEN DU**, idatzi hau aurkeztutzat hartu dadila eta onartutzat **ERREKLAMAZIO** hau, adierazitako baldintzetan, hau da, sinatzen duenaren eskubidea aintzatetsi dadila, berak aukeratutako pertsona batez (gutxienez) lagunduta egoteko, une oro eta osasun-zerbitzuek haurdunaldiko osasun-arretan egindako edozein jarduketatan.

_____ -n, 202__ -ko, _____ ren _____ an.